

“R. M.^a AZKUE” LITERATURA-SARIAK

Bilbo, 1999-III-92

*Jose Ramon Bilbao,
Bilbao Bizkaia Kutzako ordezkaria*

Lagun agurgarriok, egun on:

Dakizueenez, gaurko honetan, euskal literaturaren ganeko barri onak emoten gatoz, egintza apal honetan. Hasteko, igazko “Azkue” sariketako sarien banaketea egingo dogu, narrazio eta olerki sailetan, ume eta gazteen arloan. Horren ostean, 1997an irabazle izan ziran lanak batuz, argitaratu dogun liburua aurkeztuko dogu.

Sari honeek antolatzen diran bederatzigarren edizioa da honakoa. Halan da guztiz bere, BBK-k, euskereari eta euskal literaturari eskainitako laguntzak tradizio zaharragoa dauka.

Hor daukaguz, esate baterako, urtero-urtero antolatzen diran beste sari garrantzitsu batzuk. “Txomin Agirre” Saria elaberri arloan, “Toribio Altzaga” Saria antzerki arloan, “Felipe Arrese Beitia” Saria olerkian eta “Mikel Zarate” Saria saioan. Sari honeetarako aurtengo deialdia, gitxi barru egingo dogu, BBK-k eta Euskaltzaindiak batera, lankidetzan, estu bezain luze baten barruan.

Gaur banatuko doguzan sariei jagokenez, azpimarratu beharrekoa da, aurkeztu diren lanak, ia 500 izan dirala eta kalitate handikoak ganera. Epaimahaikoek ez dabe egin-kizun erraza izan irabazleak bereizteko, eta horrek atseginez betetzen gaitu, sariketaren antolatzaile zein babesleok.

Hain idazle gazteengan honelako kalitatea topateak, pozez betetzen gaitu, sariaren beraren eta gure literatura idatziaren etorkizunerako bermea diralako.

Ezin dira egintza honetan, laguntzaileak aiatu barik itzi. Eurak dira, egile gazteak parte hartzera bultzatu eta, euren iradokizun eta zuzenketakaz, literaturarenganako gustua sortzen eta mamitzen laguntzen dabenak. Eskerrik asko eta zorionak eurei bere.

Zeulon lanak bialduz parte hartu duzuenoi bere, eskerrik asko, BBKren izenean. Sariketa honetara zein beste batzutara aurkezten segitu daizuela, zuentzat ona izateaz gain, euskararentzat bere ezin hobea dalako. Irabazi dozuenoi eta ez dozuenoi, eskerrik asko danori, eta animo, zeulon zaletasunaren bitartez, ea etorkizuneko sortzaileak bihurtzen zarien.

Eta liburuari jagokonez, ezin oraindino gauza handirik esan. Hortxe dozue. Bertan, Juan Luis Goikoetxea irakasleak, gustu handiz jaso dauz aurreko edizinoko irabazleen lanak, xehetasunez eta maitasunez. Ea hurrengo urtean bere bardin egiten deuskun aur-

tengo irabazleen lanakaz. Eskerrik asko eta zorionak berari bere. Guri ahalik eta he-
dapan handiena emotea baino ez jaku geratzen, liburuak merezi dau eta.

Beste barik, Euskaltzaindiagaz, euskal literatura sustatzeko lankidetzan jarduteak,
BBK atseginez betetzen dauela adierazo gura dot. Gure ustean, holan, egunez egun, gure
hizkuntza, gure kultura eta gure Herria eratuz gozalako.

Eskerrik asko.

“R. M.^a AZKUE” SARIAK, 1998

Bilbo, 1999-III-12

1998ko Resurrección Maria Azkue sariak partaidetza markak hautsi dituzte berriro

Euskaltzaindiak eta BBKk antolatzen duten literatura sariketaren 8. ediziora ia 500 lan aurkeztu dituzte

Gaur, ostirala, hilak 12, Euskaltzaindiaren egoitzan 1998ko Resurrección Maria Azkue sariak banatu dira. Akademiak eta BBKk gazteen artean literatura sorkuntza bultzatzeko antolatzen duten txapelketaren zortzigarren edizioak aurreko partaidetza markak hautsi ditu berriro ere, guztira 491 lan bidali baitira. Hain zuzen ere, 242 lanek parte hartu dute 10-13 urte bitartekoentzako A mailan eta 249k 14-17 urte bitarteko gaztetxoentzako B mailan. Generoari dagokionez —maila bakoitza olerkian eta narrazioan banatuta dago—, 374 narrazio egon dira eta olerki gutxiago, 117.

Idazle gazteek ikastetxeen bidez bidali dituzte lanik gehienak. 1998.eko edizioan 50 herri ikastetxe, eskola pribatu, ikastola eta institutuk parte hartu dute. Azpimarragarria da Gernikako Seber Altube ikastolaren partaidetza, bertako ikasleek A eta B mailetak 163 narrazio bidali baitituzte, baita Azpeitiko Karmelo Etxegarai ikastola eta Pasai Lezo lizeoarenak ere, bi ikastetxe hauek lau kategorietan parte izan duten bakarrak baitira. Nahiz eta idazle nafar eta arabar bakan batzuk eta lapurtar bat ere egon, Bizkaikoak eta Gipuzkoakoak dira egile gehienak eta bi lurralde horietakoak dira saritu gehienak ere (bi bizkaitar, arabar bat eta zortzi gipuzkoar, horietariko batek bi sari eskuratu dituelarik). Bi mailetako narrazioan zein poesian lehenengo, bigarren eta hirugarren sailkatuek 50.000, 40.000 eta 30.000 pezetako dirusaria eskuratu dute. Bestalde, gazteak lana taxutzen lagundu dituzten irakasle edo senitartekoari 10.000 pezetako saritxo eman diote. Aipatzekoa da aurten irakasle bat lau sarituren laguntzailea izatea eta beste irabazle batek, aldiz, inolako laguntzailerik ez izatea.

Saritutako lanak aurten argitaratuko den liburu batean bilduko dira. Gaurko ekitaldian ere 1997ko edizioan saritutako eta aipatutako idazlanak biltzen dituen liburua ere aurkeztu da.

PREMIOS LITERARIOS: BBK - EUSKALTZAINDIA

Los premios Resurrección María Azkue 1998 vuelven a superar sus marcas de participación

Casi 500 trabajos tomaron parte en la octava edición del concurso literario para jóvenes de Euskaltzaindia y BBK

Hoy, viernes, día 12, ha tenido lugar en la sede de Euskaltzaindia en Bilbao la entrega de los premios Resurrección María Azkue 1998, el concurso literario que la Real Academia de la Lengua Vasca y BBK organizan para fomentar el interés por la creación literaria entre los más jóvenes. Esta octava edición del certamen volvió a superar, como ya viene siendo habitual, sus marcas de participación, pues se recibieron un total de 491 trabajos. En concreto, fueron enviados 242 en la categoría A, destinada a niños de 10 a 13 años, y 249 en la categoría B, para jóvenes de 14 a 17. En lo que al género se refiere —cada categoría se divide en poesía y narración— se recibieron más narraciones, 374 obras en total, que poesías, 117.

La inmensa mayoría de estos trabajos fueron enviados a través de los centros escolares de los jóvenes escritores. En esta edición de 1998 han participado medio centenar de colegios públicos y privados, ikastolas e institutos. Destacan especialmente la ikastola Seber Altube de Gernika, cuyos alumnos mandaron al concurso un total de 163 narraciones, tanto en la categoría A como B, así como la ikastola Karmelo Etxegarai de Azepeitia y Pasai Lezo lizeoa, pues estos dos centros son los únicos que han participado en todas las categorías. Aunque también se cuentan entre los participantes varios alaveses, navarros y un joven de Lapurdi, la mayoría de los autores procede de Bizkaia y Gipuzkoa y también son de esos territorios los premiados (8 guipuzcoanos, uno de los cuales se lleva dos galardones, dos vizcaínos y una alaveses). Los primeros, segundos y terceros clasificados tanto en narración como en poesía de las dos categorías han recibido 50.000, 40.000 y 30.000 pesetas respectivamente. También se ha hecho entrega de una ayuda simbólica de 10.000 pesetas al profesor o familiar que ha ayudado al joven en la confección del trabajo. En esta edición resulta reseñable que un mismo profesor ha dirigido cuatro de los trabajos premiados, mientras que otro de los ganadores no recibió ayuda de ningún adulto.

Los doce trabajos premiados serán reunidos en un libro que se publicará este mismo año. Durante el acto celebrado hoy se ha presentado también el volumen que reúne las obras galardonadas y mencionadas en la edición de 1997.

1998.eko SARITUAK/PREMIADOS 1998

A MAILA/CATEGORIA A (Edad: 10-13 urte) (242 lan/242 trabajos)

Epaimahaia/Jurado: Amagoia Lopez de Larruzea, Gerardo Markuleta eta Manu Lopez Gaseni.

Narrazioa/Narración (221 lan/221 trabajos)

1. saria/1.º premio: Malen Zobaran Santos (Busturia)
Seber Altube ikastola (Gernika)
Izenburua/Título: *Joan doa, etorri dator*
Laguntzailea/Ayudante: Luis Carbonell
Oiartzabal
2. saria/2.º premio: Ane Larrañaga Epelde (Azpeitia)
Karmelo Etxegarai ikastola (Azpeitia)
Izenburua/Título: *Baso babestua*
Laguntzailea/Ayudante: Mikel Sarasua
Imaz
3. saria/3.º premio: Argia Akarregi Garalde (Ondarroa)
Txomin Agirre ikastola (Ondarroa)
Izenburua/Título: *Zonbisorginak*
Laguntzailea/Ayudante: Marfa Luisa La-
rreina Ibarlucea

Olerkia/Poesía (21 lan/21 trabajos)

1. saria/1.º premio: Iban Izagirre Uranga (Azpeitia)
Karmelo Etxegarai ikastola (Azpeitia)
Izenburua/Título: *Eromena... amen*
Laguntzailea/Ayudante: Mikel Sarasua
Imaz
2. saria/2.º premio: Ainhoa Aranberri Eizagirre (Zestoa)
Karmelo Etxegarai ikastola (Azpeitia)
Izenburua/Título: *Maitasunaren arrastoa*
Laguntzailea/Ayudante: Mikel Sarasua
Imaz
3. saria/3.º premio: Amaia Bereziartua Paredes (Azpeitia)
Karmelo Etxegarai ikastola (Azpeitia)
Izenburua/Título: *Badakit*
Laguntzailea/Ayudante: Mikel Sarasua
Imaz

B MAILA/CATEGORIA B (Edad: 14-17 urte) (249 lan/249 trabajos)

Epaimahaia/Jurado: Xabier Altzibar, Joan Otaegi eta Joseba Butron.

Narrazioa/Narración (153 lan/153 trabajos)

1. saria/1.º premio: Imanol Carballo Tolaretxipi (Pasai San Pedro)
Pasai Lezo lizeoa
Izenburua/Título: *Aingerua naiz*
Laguntzailea/Ayudante: Julen Ezkudia Mujika
2. saria/2.º premio: Naiara de Miguel Pinillos (Mañueta-Baños de Ebro)
Assa ikastola (Lapuebla de Labarca)
Izenburua/Título: *“El mejor descanso”*
Laguntzailea/Ayudante: Enrike Fernández de Pinedo
3. saria/3.º premio: Nerea Pérez Anguas (Irun)
Pio Baroja Institutua (Irun)
Izenburua/Título: *Batek daki*
Laguntzailea/Ayudante: Jon Puy Maiez-kurrena

Olerkia/Poesía (96 lan/96 trabajos)

1. saria/1.º premio: Imanol Carballo Tolaretxipi (Busturia)
Pasai Lezo lizeoa
Izenburua/Título: *Itsasoa*
Laguntzailea/Ayudante: Julen Ezkudia Mujika
2. saria/2.º premio: Irati Goikoetxea Asurabarrena (Beasain)
Alkartasuna lizeoa (Beasain)
Izenburua/Título: *Soberakinekin jolasean*
Laguntzailea/Ayudante: Joxe Goikoetxea Jauregi
3. saria/3.º premio: Iñaki Gurrutxaga Zubimendi (Orio)
Lizardi Institutua (Zarautz)
Izenburua/Título: *Korrespondentzia erra-tua da nirea*
Laguntzailea/Ayudante: Ez

BBK-EUSKALTZAINDIA:
“R. M.^a AZKUE” SARIA

A MAILA (10-13 urte)

Narrazioaren alorrean, lehen saria jasotako ipuinean, *joan doa, etorri dator* itsas giroko herri kontakizun bat txukuntasun handiz berritu izana nabarmendu genuen. Bigarren sarituari buruz, *Baso babestua*, animismoaren erabilera eta jakinarazi nahi duen mezu ekologikoa dira azpimarragarriak. Hirugarrenean, *Zonbisorginak* izenekoan, euskal mitologiaren eta terrorezko zinemaren uztarketa bitxia saritu nahi izan genuen.

Poesiaren alorrean, orohar, lirikotasun tonuan eta baliabide poetiko modernoak erabiliz ederki burututako maitasunezko poema intimistak izan dira saritu ditugunak.

“R. M.^a AZKUE” SARIA

Bilbo, 1999-III-12

IDAZLE GAZTEENTZAKO LITERATURA SARIA

14-17 urte

Aurreko urteetan bezala, zerbait orokorra aipatu nahi dugularik, ezin dugu albora utzi lanen kopurua. Olerki sailean aurreko urtekoaren parekoa izan da: 98. Baina narrazioan bikoiztu egin da: aurreko urtean 71 eta, 1998garrenekoan: 150. Horrez gainera, testuen lantze eta aurkezte maila igo egin da jeneralean. Epaimahaikook eskertu egiten ditugu lan txukunak.

Dena dela, aurreko zerbait pertsonalagoa esan nahi genuke, bidezko baldin bazaigu, behintzat.

OLERKIA. B

Lehenengo saria: *Itsasoa.*

Autorea: Imanol Carballo Tolaretxipi. Pasai San Pedrokoa.

Itsasoaren ikuskera poetikoa eta pertsonalizatua. Deskribapena. Kontenplazioan bazez dago kontalari poetikoa haren ederra dastatzen. Zerbait berri ekartzen saiatu da.

Bertso askean emana.

Tonuz egokia. Kontenplazio baketsu gozamenezkoa poetak dakarrena. Paralelismoaz eta similikadentziaz baliatzen da poema eraikitzerakoan. Tonuaz gainera, beste hainbat baliabide poetikoz jantzia, iruditeriaz hornitua, pertsonifikazioz biribildua. Intuzioa eta ofizioa erakusten ditu egileak.

Hizkuntza ondo erabilia.

* * *

Bigarren saria: *Soberakinekin jolasean.*

Autorea: Irati Goikoetxea Asurabarrena. Beasaingoa.

Gaia originala. Zeri heldu ondo pentsatu du. Ez du lehen kolpean hautatu gaia eta forma. Bertso neurtuan mamitua; hamarreko haundian. Monorrimoan osatua. Neurriari zehatz heltzen dio, naturaltasuna galdu gabe.

Hondakinez baliatuz, edo, hobeki esanda, soberakinez baliatuz hainbat gauza egin ditu: kometa, sorgina, Txiribiton, Urolako tren. Jolas poesia da. Aparteko naturaltasuna somatzen zaio kontaketan eta bertsoa eraikitze moduan. Estrofa bakoitza poematxo beta da, bukaeran, epifonema gisa, soberakinez zer gauzatu duen aitortzen du.

Hizkera egoki darabil.

* * *

Hirugarren saria: *Korrespondentzia erratua da nirea.*

Autorea: Iñaki Gurrutxaga Zubimendi. Oriokoa.

Maiteari diosala eta agurra da olerki honetan gauzatua. Irudi literario originalenez egina den ikuskera poetikoa eskaintzen digu autoreak.

Bertso askean emana. Olerkia bi gorputzetan gauzatua da.

Iruditeria berria maite du olerkariak. Alde horretatik topikoak alhora utzi nahi izan ditu eta maitasuna adierazteko irudi mundu berriagoan eraiki. Poetizitate landua erakusten du autoreak, sentimendu heziak, artifizioaren agindura daudenak.

Hizkera ondo erabilia.

* * *

NARRAZIOA. B

Lehenengo saria: *Aingerua naiz.*

Autorea: Imanol Carballo Tolaretxipi. Pasai San Pedrokoa.

Yonkiaren istorioa. Ondo irudikatua. Kontaketa, baina,aldi berean, une bakoitzari dagokion generoa erabiliz gauzatua: kontaketa, elkarrizketa, poema, deskripzioa. Kontatzeko modu airoso eta argia. Ganbelua eta Yonkiaren arteko elkarrizketa bizia. Yonkiaren zorabioaren errepresentazioa trebeki gauzatua.

Fikzio landua. Lortua benetan egoera bakoitzari dagokion generoen erabilera.

Tonua egoerari egokitua. Amaierako sorpresa. Ironia tonu disimulatua, irakurleari etengabe irribarrea eragiten diona.

Hizkera trebeki erabilia

* * *

Bigarren saria: *El mejor descanso.*

Autorea: Naiara De Miguel Pinillos. Minueta (Baños de Ebro) Arabakoa.

Ehorztetze bateko langile bihurtu da protagonista INEMen lana eskatu eta gero. Istorio barregarria da. Edozein lanetarako prest zegoen gazteari eman dioten lan honetan lehen gaua da. Ugazabak azaldu dio gau horretan zer lan egin behar duen eta joan da bera gaztea bakarrik utziaz. Loak harrapatu du lehenengo. Gero, ezustean, ehorztetxean

sartu zaio andre zahar bat bere eskuetan motoserra duela. Ez bat eta ez bi han hasi zaio lehen mailako aberatsen hilkutxak motoserraz zatitzen. Andrearekin dituen istiluak eta ondorengoak barregarriak dira.

Kontaketa-elkarrizketa da. Bizia. Hizkuntzen nahasturaren grazian oinarritua. Nahastura hori ez gaizki hitz eginaren araberakoa. Gaur egungo kultura ezberdinen elkarrekin bizitzearen araberakoa baizik.

Hizkuntza desberdinen jolasa. Esperpentoa. Ironia eta barrea.

* * *

Hirugarren saria: *Batek daki.*

Autorea: Nerea Pérez Anguas. Irungoa.

Kazetari batek xakelari batekin bizitzen duen istorioa, hain zuzen. Istorio polita. Kazetariak ikasle zelarik xakelariarekin izandako harremanak; gero, galdu egiten dira ikasketak amaitu ondoren. Xakelariak izena aldatzen du eta ospe handiko xakelari egiten da. Biok gorde dute bihotzean noizbait elkarrekin topo egiteko itxaropena. Azken unean bat egiten dute, hain zuzen, beste erreportaia bat egiterakoan.

Egitura landua. Kazetariak eta xakelariak hizkera ezberdina egiten dute. Ahots karakterizatuz hornituak daude kontaketa. Ideiez, pentsamenduz, istorioz elkarren osagarri dira bi pertsonaiak.

Aipagarriak dira hizkera erregistroak. Bi ahotsetako jokoa. Hitano / zutanoz gauzatua. Letra molde desberdinez irudikatua.

R. M. AZKUE sariak: 1998ko lanen argitalpena eta 1999ko oinarriak aurkeztea

1999-XI-12

Jose Antonio Arana Martija

Eguerdi on. Azkue literatur bultzatzailea zela aipatu du Henrikek, baina zertxobait gehiago esan nahi nuke horretaz, zeren eta gauza bat da literatura orokorra, esan nahi dut nagusiek edo denek egiten duten literatura, edozein motatako literatura, baina sari honi dagokionetik, gazte eta gaztetxoek literatura saritzen dugu hemen Euskaltzaindiak eta BBKk, eta zertxobait esan nahi nuke gazteen eta gaztetxoek literaturari buruz, gehienbat argitzeko zergaitik sari honek daukan **Azkue**, gure R.M. Azkueren izena. Dakizuenez, Azkue euskararen inguruan arlo askotan ibili zen lanean: morfologian, sintaxian, e.a. Beraz, euskara goitik behera eta bazter batetik bestera arakatu eta ikertu zuen. Pixka bat arraro egiten da nola aipatu duen Txomin Agirrerren *Auñemendiko lorea* Henrikek, Txomin Agirre nagusia baitzen, abadea eta nagusia; baina zergatik gaztetxoek edo gazteen sariei Azkue saria jarri? Badirudi Azkue bere gizatasunean, gizon ederra, abade ederra, handia, bere kontu eta bere jakituriaz nagusia, gazteekin izan zuela euskararekiko ardurua ere. Eta hastearren Azkueren linea, gazteen literaturan, aipatu behar genuke, Bilboko institutuko euskal katedra sortu zenean 1888an bere merituen artean aurkeztu zuela ipuin bat: *Grankanton arrantzaleak*; berez, ez zen izatez ipuin bat, baina bai kontakizun bat Lekeition gertatutako batekin, eta hori haurren antzeko idazkeraz edo eginena zen.

Hiru zarzuelatxo egin zituen gazteentzat: 1898an *Sasi eskola*, beste bat *Aitaren bildur* 1917an eta *Colonia inglesa*, hirurak haurrentzat egindakoak. Esan nahi dut berak bere kabuz, bere buruz edo bere sortzez gazteentzat egindako lanak direla. *Euskalzale* aipatu du Henrikek, baina ez bakarrik literatura, bai zik eta hezkuntza edo euskarazko hezkuntza bultzatu zuen Azkuek, batetik, ikastetxea Bilboko Jardines kalean sortuz eta bestea, Ploermel fraideekin sortutako ikastola, eskola bat, haurrei euskarazko hezkuntza emateko, Berriotxoaren izenez Bilbon sortua. *Peru Matrak* eta *Pearanton* da beste ipuin bat Azkuek idatzitakoa eta hauek eta beste ipuin batzuk bildu ziren La Gran Enciclopedia Vascak argitaratu zuen liburuxkatxo baten: *Azkueren ipuinak*. Beraz, badugu sari hau Azkuerengan oinarritzeko arrazoia, Azkue asko arduratzen zelako hasiera hasieratik edo gazte gaztetandik, haurra, txikia zela eta gaztea euskaraz

idazten eta euskaraz irakurtzen animatzeko eta, nola ez, euskal literatura bultzatzen. Aurtengo sariak direla eta, gaur eskuetara heldu zaigun liburua begiratu dut eta holako sailkapentxo bat egin dut: gertatzen da lau bizkaitar direla irabazle, lau Bizkaiko herriko idazleak, Busturia, Ondarroa, Bedia eta Zornotza. Gipuzkoak dituela pilatxo bat, gehien idatzi dutenak, eta sari gehien irabazi dutenak ere Gipuzkoakoak dira: Azpeitian hiru, Pasaia San Pedron hiru eta Orion hiru; beraz, sari gehien irabazi duten herriak hiru horiek dira. Gero daude banan banakoak, biko bat ere badago, Beasain, eta banan banakoak, Urretxu, Zestoa, Irun, Segura, Zarautz, Andoain eta Oiartzun. Eta pozgarria dena, bi arabar, bata, Lantziegokoa eta beste bat Mainuetakoa. Beraz, gure hermengo Euskal Komunitatearen esparruan edo hiru probintzietan edo hiru herrialde historikoetan, hirurak daude sarituak, Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba, nahiz eta Gipuzkoa nagusi izan. Beraz, nik esan nahi nuke Euskaltzaindiak zor diola halako zorion berezi bat Gipuzkoari, gazteen artean gehien bultzatzen duelako euskararen erabilera narrazio eta olerki saioetan behintzat. Ez ditut oraindik irakurri, zeren eta gaur bertan jaso dugu liburua; pozik irakurriko dut eta poztu ere egingo naiz, zeren eta begiradatxo bat eman diot eta gauza oso politak daude hemen. Beraz, pozgarria izan dadila sari hau eskuetan izatea eta hurrengo urteetan ere jarraitzea, gazteen artean gure literatura bultzatzeko.

Eta besterik ez.

R.M. AZKUE sariak: 1998ko lanen argitalpena eta 1999ko oinarriak aurkeztea

Bilbo, 1999-XI-12

Henrike Knörr

Egun on, Euskaltzainburuaren izenean egokitzen zait hemen zenbait hitz esatea, oso-oso labur.

Dakizuen bezala, Euskaltzaindiaren zereginen artean dago literatura lantzea, sustatzea; hori dago hasierako Arautegian eta oraingoan ere. Beraz, zer esanik ez, eremu hori gure-gurea da eta horrela sentitzen dugu. BBKri esker egiten da lehiaketa hau eta biziro eskertu nahi dugu haren laguntza. Hemen dago, Jose Ramon Bilbao. Laguntza ematen du BBKk eta laguntza fisikoa eta morala noski eta, nola ez, lanak epaitzen eta jarduten dutenak. Laguntzaile horien artean aipatu behar da, urtero bezala, Juan Luis Goikoetxea, hemen nire eskuinean dagoen urgazlearen lan bikaina. Nik bakar-bakarrik aipatu nahi nuen zer garrantzi handia duen lehiaketa honek, eta gehituko nuke **Azkueren** izena daramala eta duela ehun urte eta gehiago Bilbon bertan ateratzen zuen gure lehenbiziko euskaltzainburuak, hau da, Azkuek, aldizkari bat *Euskalzale* izenekoa, eta *Euskalzale* aldizkariaren orrialdeak ikustatzen badituzue, berehalaxe konturatuko zarete Azkuek ere zer garrantzi handia ematen zion literatura-ri. Eta hark sortu zuen beste lehiaketa bat, zeinetan, besteak beste, irabazi zuen Txomin Agirrek saria, hain zuzen ere *Auñemendiko lorea* eleberriarekin. Horrekin guztiorrekin esan nahi dudana da badela hari bat, inoiz, zorionez, kanpoko gertaera tristeengatik izan ezik eten ez dena. Baina hari bat izan da eta beti etxe honetan saiatu gara literatura lantzen eta baita ere, nola ez, gazte-txoek eta gazteek egiten duten literatura lantzen.

Beraz, Euskaltzaindiaren izenean berriro ere agertu nahi nuke gure poza eta, nola ez, gure zoriona. Eta orain Jose Antonio Arana Martijak xehekiago emango du lehiaketa honen berri eta azalduko aurtengo aldiaren fruituak ere.

R. M. AZKUE SARIAK

Bilbo, egoitza, 1999-XI-12

Jose Antonio Arana Martija

Eguerdi on. Azkue literatura bultzatzailea zela aipatu du Henrike Knorrek, baina zertxobait gehiago esan nahi nuke horretaz, gauza bat baita literatura orokorra, nagusiek edo denek egiten duten literatura, edozein motatako literatura esan nahi dut, eta bereziki, sari honi dagokionetik, gazte eta gaztetxoek literatura, gaur eta hemen Euskaltzaindiak eta BBK saritzen duguna. Idazle gazteen adinak nolabaiteko muga jartzen dio sorkuntza eta idazkerari, oraindik helduak ez direlako, teoriarik behintzat, nagusien mailara.

Sari honek Azkueren izena zergaitik daraman azaldu nahi nuke. Badirudi, lehen begirada baten, eta gehiago sakondu gabe, gure Resurreccion Maria Azkue goi mailako ikerle eta idazle zela. Euskararen inguruan arlo askotan ibili zen lanean: lexikoan, morfologian, syntaxian, fonologian eta beste abar luze baten, hizkuntzaren normatibizazioan eta batasunaren bidean. Literatura ere jorratu zuen, berak sortutako antzerki, eleberri eta ipuinetan. Etnologia eta musika ere, herri musika eta bere sormenekoa izan zituen ikerketa eta emaitzako gogoko lanak. Halako euskaltzale handia, gure hizkuntzan eta kulturaren erraldoia, nola gazteen literaturari atxeki? Zelan sari hauei izena emateko Azkue handiaren izena ez erabili?

Hasteko, esan dezadan argi zeukala Azkuek txiki-txikitatik ama hizkuntza ikasi eta erabili behar zela, eta etxeko eskola paregabe hori ez zeukanak, hainbat arinen bigarren eskolan egin behar zituela ahaleginak euskara ikasteko. Hori izan zen bere jardun-bidea 1888an Bizkaiko Institutuko Euskal Katedra irabazi zuenetik. Katedra hori irabazteko lehiaketara ipuin bat aurkeztu zuen eskariarekin batera: Grankanton arrantzaleak. Ipuin gehiago argitaratu zituen gero, tartean Peru Matraka ta Pedranton, Sabino Aranarekin batera sortu zuen Abeja aldizkarian (1889). Euskaltzale aldizkaria sortu zuenean (1897) hainbat ipuin idatzi zituen, gehienak gero bilduta liburu batean La Gran Enciclopedia Vascak argitaratu zituenak (1968). Bilboko jardines kalean sortu zuen Euskal Ikastetxea (oraingo ikastolen antzekoa) non euskal heziketa ematen zitzaien gaztetxoei. Hemen antzeztu ziren Azkuek idatzitako bi zarzuela-txo: *Sasi eskola* eta *Aitaren bildur*, haur eta gazteentzat asmatuak. Bere gidaritzatik kanpo ere bultzatu zuen Ploermeleko fraideek haurrentzat Bilbon sortu

zuten Berrio-Otxoa izeneko eskola. Haurren heziketa dela eta 1897an argitaratu zuen Eskolak eta ikastetxeak lana eta urte berean Kristinauaren ikasbide laburtua. Alemanian musika ikasketak bukatuta itzuli zenean, hango hezkuntza sistema eredu moduan hartuz idatzi zuen *La escuela elemental alemana* (1916). Badira arrazoiak gazteen literatura sariei Azkueren izena emateko.

Aurtengo sariak direla eta, gaur eskuetara heldu zaigun liburua ikusita, holako sailkapentxo bat egin dezakegu: lau bizkaitar agertzen dira sarituak, herri hauetakoak: Busturia, Ondarroa, Bedia eta Zornotza. Gipuzkoarrak dira gehien sarituak: Azpeitian, Pasaia San Pedron eta Orion hiru, Beasainen bi eta Urretxun, Zestoan, Irunen, Seguran, Zarautzen, Andoainen eta Oiartzunen bana. Eta benetan pozgarria dena, bi arabar ere sarituak izan direla, Lantziego eta Mainuetakoak. Beraz, gure Komunitateko hiru herrialde historikoetako gazteek irabazi ditute sariak. Aipamen berezi bat zor dio Euskaltzaindiak Gipuzkoari, gazteen artean gehien bultzatzen duelako euskararen erabilera narratio eta olerki saioetan. Eta zorionak, nola ez, saridunei.

AZKUE LITERATURA SARIAK: 1998ko liburua eta 1999ko oinarriak

Bilbo, 1999-XI-12

*Jose Ramon Bilbao,
Bilbao Bizkaia Kutzaren elebitasun Zerbitzuko burua*

Eguerdi on, mahaikideok eta hona etorri zareten kazetari, idazle gazte, euskaltzain eta lagunok.

Ikusi eta entzun duzuen moduan, ekintza xume honetan, euskal literaturaz gazteari buruzko berriak eman ditugu.

Batetik, aurtengo Azkue Literatur Sarien oinarrien berri eman dugu, eta bestetik, igaz irabazle izan ziren lanekin moldatutako liburua aurkeztu.

“Azkue” sariak, Euskaltzaindia eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioaren ekimenez antolatzen dira urtero, olerki eta narrazio arloetan, gaztetxo (10 eta 13 urte bitarteko) eta gazteentzat (14 eta 17 urte bitartekoentzat).

Sari hauek, erakunde biok lankidetzan urtero antolatzen ditugun literatur sariaketa multzoan sartuta daude: gazteentzat den honetaz gain, idazle helduentzat, Txomin Agirre eleberrari arloan, Toribio Alzaga antzerkian, Felipe Arrese Beitia olerkian eta Mikel Zarate saioan ere urtero egiten baitira.

Gainera, horietariko batzuk, 1958tik hona egiten dira. Ez da makala 41 urtez irautea elkarlanean!

Oraingo honetan mintzagai dugun “Azkue” izenekoan, hiru sari ematen dira arlo (olerkia edo narrazioa) eta adin bakoitzeko. Lehenengo sariari 50.000 pta. egokitzen zaizkio, bigarrenari 40.000 eta hirugarrenari 30.000 Dena den, badakigu honelakoetan diru kopurua inportantziarik gutxienekoa dela.

Honez gain, 10.000 pezetako laguntza dago irabazleen laguntzaileentzat. Oro har, laguntzaileok, lehiakide gaztea parte hartzera animatu eta sormen lanean laguntzen dieten irakasle edo senitartekoak izaten dira. Ezin dira aipatu barik utzi, euren iradokizun eta zuzenketekin, gazteen literaturarekiko atxikimendua, sormenezko jarduera bilakatzea lortzen dutelako.

Aurtengo sariketak aldaketa txikitxo bat dakar, lanak aurkezteari dagokion atalean. Aurten honela dio: “Lanak, idazmakinez edo ordenagailuz egi-

nak egon behar dute. Hau da, ez da eskuz idatzitako lanik onartuko". Aldaketa hau, epaimahaikoei kasu eginez sartu dugu, batzuetan eskuz egindako lanak irakurtzea zail gertatzen zaiela eta. Dena den, gaur egun, gazteentzat ez dugu uste inolako oztopoa denik, sarritan eurek direlako gurasooi informatika arloan eskolak ematen dizkigutenak eta ez alderantziz.

Ekitaldiaren bigarren atalean lan sarituak biltzen dituen liburua aurkeztuko dugu. Hau sari gehigarri moduan egiten da, idazleak, idazterakoan, bereztat egiten duelako, baina baita beste norbaitek irakurtzeko ere, eta hori, lana argitaratuta baino ez da lortzen. Eta horixe egiten dugu, idazle kume eta kimu hauei, aukera hau eskaintzeko.

Eta liburuari dagokionez, aurtengoan, iazko irabazleez gain, epaimahaia-
ren ustez argitaratzea merezi zuten beste lan batzuk ere badakartzala esan behar. Guzti honen antolaketa eta prestaketa, Juan Luis Goikoetxea irakaslearen eskuetan egon da, aurreko urteetan legez. Beraz, eskerrik asko berari ere hain fidel jokatzegatik.

Guri orain, BBK eta Euskaltzaindiari, liburu honi ahalik eta hedapen handiena eta txukunena ematea dagokigu.

Beste barik, eskerrik asko.